

Goi mailako eta errendimendu handiko kirolari direla egiaztatzen duten ikasleek, ez dute egin behar Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduan sartzeko ezarritako proba berezia (proba fisikoak).

Egiaztapen horretarako behar den dokumentazioa helbide honetara bidali beharko da, Proba Fisikoetan izena emateko epean edo UPV/EHU n sartzeko izena emateko epe orokorrean:

acceso@ehu.eus

Proba berezia egitetik salbuetsita egon arren, egin egin behar dira unibertsitatean sartzeko gainerako proba orokorrak.

Unibertsitatearen ustez aurkeztutako agiri horiek egokiak ez badira, ikasle horrek proba fisikoak egiteko izena eman beharko du argitaratutako epeen barruan eta proba fisikoak egin beharko ditu. Hala ere, ikasleak errekurtsioa aurkeztu ahal izango du goi mailako edo errendimendu handiko kirolari izaera aitortu ez zaiolako.